

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

gazteak



INAUTERIE TAKO DESFILEA

Zk. 174 / Negua 2019 MARTXOA | www.zizurkil.eus / 943 691012
Ernio Bidea 9A, behea, 20159 ZIZURKIL

KULTURA

Martxoak 3

INAUTERIE TAKO DESFILEA Pedro M^a Otaño, San Millan, Zubimusu Ikastola eta Uliaspikoen eskutik. Ikastetxeetako haurrak Pagamuño Plazan bilduko dira eta 15:15ean hasiera emango zaio desfileari. Herrian zehar ibili ondoren, Plazan emanaldia eskainiko dute eta ondoren merienda./ **Desfile de Carnavales.**

SAGARARTE

ERAKUSKETA ETA ARTEA DASTATZEKO AUKERA

Otsailak 22

PLAZIDA OTAÑO KO ERAKUSGUNEAN IKUSGAI DAGOEN ASTARBE SAGARDOTEGIAK SUSTATUTAKO ERAKUSKETARI LOTUTA, EGARRI ETA PASUS TABERNETAN KATA MARIDATUAK egingo dira.

Hebrear, greziar, erromatar, vikingo, zeltiar, kristau zein euskaldu nok sagarrez mintzatu izan gara gure mitologia zein kondairen bidez. Sagardoaren Kondaira esposizioak kondaira guzti hauetan zehar bidaiatzea proposatzen dizu hain gurea den Sagardoaren jatorriak ezagutzuz.

Obra bakoitza pintxo eta sagardo batekin lotuko da eta katak egiteko aukera desberdinak egongo dira:

- Martxoak 1 Egarri tabernan ITSASONTZI BATEN...
- Martxoak 29 Pasmus tabernan GURE SAGARDOTEGIAK

ZATOZ SAGARDOAREN KONDAIRAREN KATA MARIDATUETARA!
VEN A LA CATA MARIDAJE DE LA HISTORIA DE LA SIDRA!

GAZTEZULO

GAZTEENTZAKO ESKI IRTEERA FORMIGALERA

¡VEN A ESQUIAR CON NOSOTROS A FORMIGAL!



OHARRA: 25 plazako autobusa bete beharko da irteera antolatzeke.
ANIMA ZAITEZ ETA ZATOZ FORMIGALEKO ELURRAZ GOZATZERA!

GAZTEZULOK antolaturik, 1999-2010 urte bitartean jaiotako gazteei zuzenduriko eski irteera. Prezioa: 35 euro (eta 15'40 euro material alokairua) eta 60 euro zizurkildarrak ez direnentzat. Izen emateak: Gaztezulo edo Udal Bulegoetan martxoaren 1a baino lehenago, nortasun agiriaren fotokopia, Osakidetzako txartelaren kopia, gurasoen baimena sinatuta eta dirua ekarri.

ZATOZ!
GAZTEZULO
ZATOZ GAZTEZULO!

MARTXOA

astelehena osteguna ostirala larunbata

		01	02
		ITXITA	ITXITA
4	7	8	9
ITXITA	JOLAS LIBREA	ITXITA	GURE BOLARA
11	14	15	16
JOLAS LIBREA	CREP TAILERRA	GURE BOLARA	PELIKULA
18	21	22	23
BATIDO TAILERRA	JOLAS LIBREA	GURE BOLARA	PELIKULA
25	28	29	30
JOLAS LIBREA	ZERAMIKA TAILERRA	BATIDO TAILERRA	GURE BOLARA

PAREKIDETASUNA

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA:

BISITA EZAZU EMAKUMEEN TXOKOA PLAZIDA OTAÑO LIBURUTEGIAN / DESCUBRE EL RINCÓN DE LA MUJER EN LA BIBLIOTECA PLAZIDA OTAÑO.

Txoko honek emakumeok prestakuntza jasotzeko, hausnartzeko eta elkarrekin egoteko dugun gune bat izan nahi du. Txoko honetatik abiatuz, ahalduntze pertsonala eta kolektiboa eskuratzen lagunduko diguten gaitasunak ikasi eta garatzeko aukera eskaintzen zaigu. Hiru hilean behin programazioa publiko egingo da. Zatoz!

Martxoak 2

ONDARRU herria emakume sortzaileen emariaren bidez ezagutuko dugu eta bazkaria **Lekeition**. Ondarruko EMAKUME ETXEA bisitatuko dugu eta egiten duten lanketaren berri izango dugu. Prezioa: 30 euro.

Martxoak 7

ZINEGOAK, BILBOKO 16. GAYLESBOTRANS NAZIOARTEKO ZINEMA ETA ARTE ESZENIKOEN JAIALDIKO LAN HOBERENEN SORTA Plazida Otaño gela balioanitzean 19:00etan. **VO + subtítulos en euskera y castellano.**



Martxoak 14

Izaro Lasaren LA VIDA NOS LLAMA liburuaren aurkezpena 19:00etan Plazida Otaño gela balioanitzean. **Bilingüe.**



GREBA FEMINISTA

Martxoak 8

Greba feminista bizitzako esparru guztietan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, sexualitatean, kontsumo ereduan, familia eraikitze moduan, jakintzak ekoizteko eran, arrazakeriaren aurrean, edertasun ereduan eta zapalkuntza guztien aurrean. Greba feministarekin, hetero-pratiarkatu-kapitalistari PLANTO egingo diogu!

Zizurkilgo Batzordea martxan dago eta greba aurretik hainbat ekintza antolatu ditu.

Martxoko programa:

Martxoak 6

PINTXO POTE FEMINISTA plazan 19:00etan. Zatoz!

Martxoak 8

GREBA FEMINISTA

ESKURA EZAZU ZURE ZAPI MOREA ETA PARTE HARTU GREBA FEMINISTAN!!!

- 8:00etan GREBA FEMINISTARI HASIERA EMANGO ZAIO ZIZURKIL-VILLABONAKO ZUBI PEATONLEAN.

- 8:30ean KOTXE KARABANA. Asteasuko igerilekuko aparkalekutik abiatuta.

- 11:00etan KOTXE KARABANA TOLOSARA IRITSIKO DA.

- 12:00etan ZIZURKIL-VILLABONA MANIFA.

- AIZTONDOKO EMAKUMEEN BAZKARIA ZIZURKILEN (Bakoitzak bere bazkaria ekarriz).

- 19:00etan DENAK DONOSTIKO MANIFARA!!!

“Gogoratzen naiz lehengo amonen zapi gaineko gobaraz, gogoratzen naiz lehengo amonaz, gaurko amaz ta alabaz...”

Maialen Lujanbio
bertsolaria



KIROLA

XV. AIZTONDO KLASIKOA:

Martxoak 17

Villabonatik abiatu eta Adunara iritsiko da lasterketa.



BESTELAKOAK

Martxoak 9

Alazne Etxaburuari herri omenaldia Txapel Egunaren 26. urteurrenean

16:00etan, Txapeldunen musa Zentroan
17:30ean, Bukalai Dantza taldearen emanaldia.
19:00etan, Herri Kirolak. Emakumeen arteko saioa.
Ondoren, Txapeldunen trikopoteoa herrigunean.
21:00etan, Txapeldunen afaria eta omenaldia.

Afariaren prezioa 22€koa da, eta tiketak salgai daude Iriarte eta Plaza Etxeberri jatetxeetan. Afalostean giroa jarritz, Amaia Agirre eta Unai Mendizabal bertsolariak saiotxo eskainiko dute.



Martxoak 9

40 URTE ETA ALDAPAN BEHERA NIEK, Txikiren bakarrikzeta ATXULONDO TABERNAN 23:00etan.

